Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Mari Madariaga Sierra-Sesumaga

Durango, Bizkaia
(1933-2018)



Aurkibidea

Biografia



1933an jaio zen Kurutziagan. Aita bertakoa zuen eta ama Zeanurikoa. 4 neba-arrebatatik 2. izan zen bera. Bere etxean latorritegia (hojalateria) zuten; bere aitona, aita eta ostean bera ere bertan ibili ziren lanean. Durangoko bonbardaketa ostean, Zeanuriko amonarenagana eta Abusun (Bilbo) zuten osaba batengana joan ziren. Hilabete batera-edo Durangora bueltatzerakoan, etxeko gauza guztiak ostu zizkietela ohartu ziren. Umetan Santa Susanan ibili zen urtebetez eta ostean, Maristetara joan zen. 3 urtez merkataritza ikasi ostean, etxeko tailer-dendan hasi zen beharrean eta horretan aritu izan da beti. Baserritarrak izaten ziren beraien bezero gehienak, farolak, gaztaontziak, marmitak eta abar beraiek erosten zituzten-eta. Aitaren aldeko hiru osaba abadeak ziren; hori dela eta, umetan meza-laguntzaile legez askotan aritu zen Andra Marin zein Santa Susanan. Osaba bat Kubara desterratu zuten, eta bertako seminarioko erretore zela Fidel Castro ezkondu zuen. Erretiroa hartu aurreko urteetan, latorria lantzeaz gain kristalari legez aritu zen. Bere iloba batek hartu zuen bere negozioaren lekukoa. Bere emaztea jaiotzez gernikarra zen, baina Zornotzan bizi izandakoa; 4 seme-alaba hazi zituzten.

Zintak

DUR-031

- **Proiektua**: Durangoko ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-05-13
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Lehengo Kurutziaga

- **Erref**: DUR-031/002
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 00:02:12. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Jose Mari Kurutziagan jaio zen. Kurutziagako alderdi bat guztiz aldatuta dago, bestea ez. Aldaketa horiek aipatzen ditu: doña Adelaren txaleta, Txibitonen etxea, Garai jauregia, Areitiorena...

2. Ura eta argia etxean zuten

- **Erref**: DUR-031/003
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Kurutziagan ez zuten labaderorik, kanposantu bidera joaten ziren. hala ere, beraiek ez ziren hara joaten etxean beti izan dutela ur korrontea eta argia. Kaleko argiak tiragomarekin apurtzen zituzten umetan.

3. Kaleko jolasak eta

- **Erref**: DUR-031/004
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:11:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Umetan mutilek mutiletara ibiltzen ziren. Kalean losak eta lurra egoten ziren. "Al linque" eta aroarekin jolasten zuten. Pilotak trapuzkoak ziren, norberak egindakoak, bere osabak erakutsi zion zelan egin.

4. Frontoiak

- **Erref**: DUR-031/005
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:13:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Maristetako frontoira egunero joaten ziren. Ezkurdiko frontoia nagusiak joaten ziren eta beraiek ikustera bakarrik joaten ziren. Frontoia ez zen gaur egun bezalakoak. Jesuitetan ere beste frontoi bat zegoen.

5. Gazterik hojalaterian lanean

- **Erref**: DUR-031/006
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:17:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:
Santa Susanan ibili zen 6 urte zituela. Gero maristetara joan zen merkataritza ikasi aurretik. Baina ikasketak bukatu baino lehen, aitagaz hasi zen latorritegia (hojalaterian) lanean. Baserritarrak izaten ziren beraien bezero gehienak. Sasoi hartako dirua, ogerlekoak eta errealak zelakoak ziren aipatzen du. Denda-tailerra zen latorritegia. Kristala ere lantzen zuten, azkenean horretara dedikatu zen Jose Mari.

6. Baserritarrak zituzten bezero

- **Erref**: DUR-031/007
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:17:03. **Bukatu**: 00:19:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:
Mutikotan hasi zenez aitaren latorritegian (hojalaterian) lanean, aldaketa asko ezagutu zituen lanbidean. Hasieran latorria (hojalata) erabiltzen zuten, gerora plastikoa. Dena zen esku-beharra. Bezero gehienak baserritarrak ziren: farolak, gaztanontziak... oso bezero onak ziren.

7. Kristalari lanak

- **Erref**: DUR-031/008
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:19:39. **Bukatu**: 00:23:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:
Aitarekin latorritegian beharrean hasi zenen biak bakarrik aritzen ziren. Aititeren sasoian behargin gehiago ziren. Latorrizko produktuen gainbehera hasi zenean, kristala lantzen hasi zen batez ere. Durangoko obra askotako kristalak berak jarritakoak dira.

8. Liburu bakarra ikasgai guztietarako

- **Erref**: DUR-031/011
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:26:43. **Bukatu**: 00:28:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Santa Susanan lehen jaunartzea egin zuen bertako ikasi baitzuen, baina ez du askorik gogoratzen. Gero, maristetara joan zen eta bertan mutilak baino ez zeuden. Liburu bakarra zuten ikasgai eta ikasturte guztietarako.

9. Maristei gaitzizenak jartzen zizkieten

- **Erref**: DUR-031/012
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:28:55. **Bukatu**: 00:31:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Maristei gaitzizenak jartzen zizkieten; horietako batzuk aipatzen ditu. II. Mundu Gerra amaitu zenean, maiatzean, egunero arrosarioa errezatzen zutela gogoratzen du.

10. Eskolan erdaraz, euren artean euskaraz

- **Erref**: DUR-031/013
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:31:25. **Bukatu**: 00:34:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Merkataritza ikasketak egin zituen maristetan. Marista gehienak ez ziren durangarrak. euskaldunak izan arren ez zuten euskara ikasten, baina beraien artean bai egiten zuten. Maristek ez zieten galarazten euskaraz berbetan.

11. Kalean beti erdaraz

- **Erref**: DUR-031/014

- **Iraupena**: 0:04:51. **Hasi**: 00:34:05. **Bukatu**: 00:38:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Etxean beti euskaraz egin arren, kalean ez zuten egiten, oso gutxik egiten zuten-eta. Bere edadeko gehienek ez zekiten nahiz eta haien gurasoek bai jakin. Etxean zuka hitz egiten zuten, lagunekin edozein modutara. Dendara joaten zitzaizkien baserritar askok hika egiten zuten. Andra baserritar batzuk dendan erdaraz egiten zuten, baina laster igartzen zitzaien euskaraz hobeto konpontzen zirela. Euskaraz egitearren aguazilekin arazoak izaten zituzten.

12. Desterratutako osabak Fidel Castro ezkondu zuen

- **Erref**: DUR-031/016
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:39:09. **Bukatu**: 00:43:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Bere aitaren hiru anai abadeak ziren. Horietako batek alde egin behar izan zuen, desterratuta. Kuban (seminario bateko erretore) eta AEBn egon zen. Nor eta Fidel Castro bera ezkondu zuen, gerora Kubako agintaria izango zena. Castroren hainbat kontu kontatzen ditu.

13. Pilotak zelan egin

- **Erref**: DUR-031/017
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:43:15. **Bukatu**: 00:45:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:
Bere osaba batek pilotak egiten zituen. Pilotak egiteko eman beharreko pausuak azaltzen ditu. Bere osaba hori abadea zen. Pilotak ez zituen egiten saltzeko berak jolasteko barik. "Silleruek" saltzen zituen.

14. Bonbardaketan bizitakoak

- **Erref**: DUR-031/018
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:45:38. **Bukatu**: 00:49:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bonbardaketan hegazkinen erasoak hasi zirenean, sirenak entzun eta ezkutatu egin ziren. Erreka txiki baten ondoan ezkutatu ziren etxeko denak. Etxera bueltatu orduko, ezkutatuta zeuden lekuan bonba bat bota zuten. Egun hartako usaina oraindik ez du ahaztu.

15. Elizak suntsitu zituzten etxeak barik

- **Erref**: DUR-031/019
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:49:04. **Bukatu**: 00:52:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Bonbardaketak Kurutziagan izan zuen eragina: etxerik ez zuten jo, baina Santa Susanako eta jesuitetako eliza zuzen-zuzenean. Bere arrebak izterrean metraila izan zuen bizi guztirako. Andra Mariko elizan jendez lepo zegoela, meza orduan, erre zuten.

16. Baserritarrei erosten zizkieten produktuak

- **Erref**: DUR-031/022
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:56:24. **Bukatu**: 00:59:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean ogi beltza zuten. Esnegainarekin gozo jaten zuten. Tabakoa ere errazionamenduan ematen zuten. Baserritarrak etxera joaten zitzaizkien esnea eramatera, azkena Gaztelu auzokoa, Durangora astoz etortzen zen azkena. Bestelakoak zapatuetan erosten zituzten plazan, gaur egun bezala.

17. Antzinako elizkizunak

- **Erref**: DUR-031/026
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:05:40. **Bukatu**: 01:07:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Mezara jesuitetara eta Andra Marira joaten ziren. Latinez ez zuten ezer ulertzen. Bera askotan aritu zen monagilo lanetan osaben alboan, hiru osaba baitzituen abade. Jendeari lepoa ematen zien. Euskarazko lehen sermoia Franco bizi zela, Iurretan entzun zuen bere osabaren ahotik.

18. Monagilo beharretan

- **Erref**: DUR-031/027

- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 01:07:42. **Bukatu**: 01:10:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Hiru osaba abade zituen eta sarritan aritu zen monagilo eginkizunetan. Bere lana zein zen azaltzen du. Behin pezeta bat (paperezkoa) eta makatz bat eman zien ordainetan. Sermoiak oso gogorrak izaten ziren, batez ere garizuma sasoiko misioetakoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-05

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com